

AUZOLAN ESPERIENTZIAK

Pilotan taldeka jokatzeko da Gasteizen

2008an Gasteizko Alde Zaharreko San Jose udal pilotalekua erabat utzita zegoen. Bizilagunak batu eta euren kabuz berreskuratzeko erabakia hartu zuten, auzolanean. Hori irudikatu nahian, kirol guneari izen berria eman zioten: Auzolana Pilotalekua. Gaur egun, Txapa Ahotsa asanblada arduratzen da frontoia behar bezala mantentzeaz eta txandak banatzeaz.

| MARTIN VICIOSO |

UDABERRIKO EKAITZEK San Jose pilotalekuaren estalkia hondatu zuten 2007an. Urtebetez, Gasteizko Alde Zaharreko bizilagunek ezbeharrak konpon zitzen eskatu zioten Udalari. Baina erantzunak —edo erantzun ezak— ez zituen auzokideak ase. Inguruko elkarteek eta herritarrek elkartzeko erabaki zuten egoerari buruz hausnartzeko. Bertatik sortu zuten Txapa Ahotsa asanblada, frontoia auzolanean berreskuratzeko eta kudeatzeko zuen taldea.

Obrak egin ahal izateko finantziarioa eta babesa auzoko eragileek eta herritarrek eman zuten gehienbat. Besteak beste, teilatua konpondu, euriteek izorratutako zorua altxatu, frontoi osoa margotu eta paretak berdindu behar izan zituzten. Hilabete gutxiko lana izan zen, eta aurtengo ekainean bost urte bete dira Auzolana Pilotalekua berriro ireki zutenetik. Ordutik, erabili nahi duenaren eskura geratu da. Hiru hilean behineko asanbladetan erabilera eta garbiketa txandak banatzen dituzte. Halaber, pilotarekin zerikusia duten bestelako jarduerak ere egiten dira Auzolana Pilotalekuan. Adibidez, Txapa Ahotsak berak antolatutako umeentzako pilota ikastaroak.

Pilotalekuak Alde Zaharreko elementu garrantzitsu bilakatu nahi du. Horregatik, asanbladako kideek eta inguruko beste elkarte eta taldeek ekintzak antolatzen dituzte bertan. Esaterako, frontoiaren urteurrena ospatzeko ekitaldi bereziak egin dituzte, auzoko festak baliatuz. Hala nola, kalejira, bertso saioak eta auzokideen arteko lagunarteko partidak jokatu dira.

Hiru hilean behineko asanbladetan erabilera eta garbiketa txandak banatzen dituzte. Umeentzako pilota ikastaroak ere antolatzen dira



Zailtasunak zailtasun, aurrera

Asanbladako kideek hasieratik salatu dute Udalak erakutsi duen jarrera. Moldatze lanak bukatzean, Txapa Ahotsak taldeko kideek pilotalekuarekiko eta auzoarekiko instituzioen “utzikeria” salatu zuten. Udalaren ardura peko instalazioa izan arren, garai batean ez zuen berreskuratze lanetan parte hartu —ez ekonomikoki, ezta obretan laguntzen ere— eta gaur egun ere ez ditu mantentze lanetarako beharrezkoak diren gastuak bere gain hartzen.

Dena den, gasteiztarrek erakutsi dute herritarrak elkartzeko, auzolanean, proiektuak aurrera eraman daitezkeela eta jarraipena eman ahal zaiela. Haien hitzetan, “aldarrikapenetik ekintzara” pasa ziren, eta oztopoak oztopo Gasteizko Alde Zaharrak badu bere pilotalekua. Kasu honetan, urtebete blokeatuta zezan arazoari erantzun erraz bezain eraginkorra eman zaio elkarlanean. Halakoe-tan, asanbladakoek nabarmendu dute “auzoaren beharrak asetzeko antolakuntzak duen indarra”.

Auzolana Pilotalekuan behintzat, esku-pilota taldekako kirola izan daitekeela frogatu dute Txapa Ahotsa asanbladako kideek. ■

